



203. zenbakia

· URTARRILA 2021 ·

# *pulunpe*



*Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria*

## ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

### PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

### EMAILA

pulunpe@gmail.com

### ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan eta Lurra.

### KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

### TIRADA

1.700 ale

### INPRIMATEGIA

Gertu

### MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

### AZALEKO ARGAZKIA

Olentzero eta Mari Domingi Imotzen  
Egilea: Aritz Gorostiaga (Bi Ahizpak Bideo)

### LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira urtarilaren 11an bidalia



## UR GOIENA, UR BARRENA

Urte berriari hasiera emateko errito zaharra,  
Sakana, Larraun eta Imotz baileretan

“

*Izotzetan, elurretan,  
abenduko gau luzetan,  
beste guztiak oian eta gu  
gaixuok oin utsetan.  
Arantzazu ¿zer dakazu?  
Ur goiena, ur barrena.  
Ur goiena, ur barrena,  
urte berri egun ona  
Etxe onetan sar dadiela  
bakearekin osasuna,  
bakearekin osasuna,  
onarekin ondasuna.  
Etxe ontako nagosi jaunak  
poltsea txintxirrinduna,  
poltsea txintxirrinduna,  
zizarrez ezpataduna.  
Gure baratzean berar ona,  
ark botatzen du usai ona.  
Goian goian irargia,  
erdi-erdian krabelina  
Gure zonaldeko errituekin  
bat eginez, urte honi  
osasuna eta desio hoberenak  
eskatzen dizkiogu  
Urte berri on opa dizuegu!* ”

Plazaolako Partzuergoko  
Facebookean irakurria



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra





# Letizia Altuna, Erripa

## *“Hemengo bizitzatik gehien herriko lasaitasuna eta mendia ditut maite”*

Erripako (Odieta) banatzaile ofiziala da Etxekarteko Letizia Altuna, nahiz eta Bakartxo Iragiren eta honen seme-alaben laguntza jaso izan duen azken hilabeteotan behin baino gehiagotan. Bertan jaioa, herrian gelditzeko hautua egin du Altunak, eta Kontzejuko alkate ere bada gaur egun.

### • Erripakoa zara jaiotzez, bertan bizi izan zara beti?

Bai, hemen jaioa naiz, ama bertakoa dut eta aita Olaguekoa, eta txikitatik hemen bizi izan naiz. Egia da gaztetan bi urtez Arraitzen bizi izan nintzela, hemendik hurbil, baina gure aita hil zenean amarekin eta anaiarekin hitz egin eta etxea erditik banatzea erabaki genuen. Ama beheko pisuan bizi da orain, eta ni goian.

### Lanean, berriz, Iruñean ari zara.

Iruñera joan-etorrian ibiltzen naiz, hango aseguru enpresa batean ari bainaiz lanean. Telekomunikazio ingeneritza ikasketak egin nituen bere garaian, baina orain horretan ari naiz.

### Zer da Erripako bizitzatik gehien maite duzuna?

Herri txikia dela eta lasaitasun handia dugula. Gainera, Iruñetik oso hurbil gaude, eta bi gauzak dauzkagu hemen: herriko lasaitasuna, eta jendea ikusi nahi baduzu Iruñera jotzea ere oso erraza dela. Horrez gain, mendia hurbil izatea garrantzitsua da niretzat, lasterka egitera ateratzeko.

### Mendi-lasterkaria zara, orduan?

Bai, horretan ere aritzen naiz, eta lasterketetan parte hartu izan dut. Azken urte honetan guztiak bertan behera gelditu dira eta lehenagotik ere lesio baten

ondorioz aurkeztu gabe neraman denbora. Baina bai, aurkeztu izan naiz, hemen hurbileko Nafarroa Xtrem lasterketan parte hartu izan dut, adibidez.

### Pulunpe banatzen noiz hasi zinen, eta zergatik?

Lehen Maria Angelesek banatzen zuen, baina ospitalean gaixo egon zenean nire gain hartu nuen, eta orain koronabirusaren kontuarekin berriz hasi naiz banatzen. Honezkero ohitura bezala gelditu

da! Erripako alkatea naizez, lan hori badagokidala sumatzen dut. Dena den, ez da lan karga handia, etxe gutxi gara hemen.

### Eta Erripako alkate izateak, lan karga handia suposatzen du?

Beno, Odietako Udalak egiten du lan gehiena hemen, idazkariak agiri lan eta tramitazio guztiak egiten ditu. Gure gain dago erabakiak hartzea, herrian zein behar dauden aztertzea, kontuak eramatea eta batzarreak deitzea...



▲ Bakartxo Iragirekin eta honen seme-alabekin egiten du batzuetan banaketa Letiziak



# Gaztaina

## berreskuratzeko aurrerapau

### ***Ekonomia iturri eta baliabide natural gisa berreskuratu nahi da***

Noizbait aipatu dugu Pulunpen, gaztainak garrantzi handia izan duela Euskal Herrian. Duela hamarkada batzuk oinarritzko elikadura zen etxe guztietan, eta landa-ekonomia tradizionalan diru sarrera ere bai. Arrazoi ugariengatik, gaixotasunak tartean, jarduera galdu zen. Baina, Nafarroako Gobernua, besteak beste Euskal Herriko Hazien Sareak lagunduta, berreskuratzeko lanetan ari da. Proiektua Nafarroako iparraldean jarri dute martxan nagusiki, gure eskualdean barne.

Hamalau dira Nafarroan gaztainondo zaharren populaziorik handienak eta garrantzitsuenak biltzen dituzten herriak: Anue, Basaburua, Baztan, Bertizarana, Donamaria, Eratsun, Esteribar, Ezkurra, Beintza-Labaien, Lantz, Oitz, Saldias, Ultzama eta Urrotz. 2014an Nafarroako Gobernuak kontserbazio zonalde berezi izendatutako zonaldearen barnean kokatzen dira. Gaztainondo populazio hori mantentzeaz gain, garai batean zeuden barietateak berreskuratu nahi ditu gobernauk,

eta baita gaztainondoaren ondarea eta garrantzia ere.

Horretarako, hainbat ildo jarri dira martxan: alde batetik, gaztainondo barietate guztiak identifikatu eta aztertu nahi dira; bestetik, horiek bilduko dituzten landaketak jarri dira Oskotzen eta Baztanen, azterketarako; aldi berean, adineko jendearekin elkarrizketak egiten ari dira, gaztainaren inguruko ondarea biltzeko eta barietateak identifikatzen laguntzeko.

#### **Lehenengo urratsa, genotipoak aztertzea eta identifikatzea**

Haiek berreskuratu ahal izateko, gure inguruan txertatzen ziren barietate guztiak ezagutu nahi dira. Xabier Azpiroz, Basaburuko udaleko zinegotzia eta basozaina da: "Gaztainondoak ezagutzen dituen oso jende gutxi gelditzen da, baina hala ere, herri guztietan topatu da norbait horiek ezagutu eta mendian daudenak zein barietatekoak diren esateko gai dena. Mendira joan dira horiek markatzeko eta laginak hartu dira laborategi batean genotipatzeko, hau da, zein barietatekoak diren jakiteko".

Lantzen, esate baterako, gaztainondoak etxean dituen eta txertaketak ongi ezagutzen dituen José Iruritarekin izan dira. Berarekin batera, Esteban Ariztegik ere lagundu du: "José Iruritak nik baino hobeki ezagutzen ditu barietateak eta txertaketa prozesuak, baina laguntzeko esan zidan eta nik ere eraman nituen bildutako gaztainak. Berak gaztainondoak ditu, baina gaixorik daude, eta haiek ez galtzeko biltzen eta helarazten dizkiete basozainei. Guk Sanmigelak, ostogorriak eta ostobeltzak eman dizkiegu, eta haiek laborategira eraman dituzte".



Gaztainondoak. Gabriel Fdez, Flickr.



▼ **Gaztainak.** Manuel m.v., Flickr.



### **Pandemiaren eraginez, laginak ere kaltetuak**

Dena den, proiektu honetan ere izan du eragina pandemiak: "Laginak bidali eta gutxira konfinamendua etorri zen. Laborategiko jendea ere etxera bidali zuten eta ondorioz, lagin horiek galdu ziren. Orain berriz bidali zaizkie, horiek eta gerora jaso diren lagin gehiago", azaldu digu Xabier Azpirozek.

Orduan bidali zitzaizkien 130 lagin inguru eta beste hainbeste jaso dituzte laborategian. Udaberrira edo udara arte ez ditugu emaitzak ezagutuko. Gurean, Lantzik hasi eta eskualde osoan bildu dira laginak. Emaitzetan ikusiko da baina guztira 20 bat barietate biltzea aurreikusten da. Gurean, oraingoan, dozena bat barietate ezagutzen dira: Ostagorria, gaztaingorria, ostazuria, ostabeltza, Sanmiguela, xarobea, inurria, beratarra, txertoa, latxa eta mentolatza.

### **Ondarea ere berreskuratuz**

Proiektu honen azkeneko hanka gaztainaren ondarea jasotzea izango litzateke. Euskal Herriko Hazien Sarea elkarrizketak egiten ari da hainbat herritan, eta baita gurean ere.

### **Barietateak aztertzeke bi lursail, Oskotzen eta Baztanen**

Azkenik, behin barietateak identifikatu eta aztertu ondoren, horiek berreskuratzeke txertaketak egin nahi dituzte. Horretarako bi lursail hartu dituzte, bata Baztanen eta bestea Imotzen, Oskotzen hain zuzen ere. Xabi Azpirozek azaldu digu: "Barietate bakoitza partzela horietan landatu diren arboletan txertatzea da asmoa, gutxienez horiek mantentzeko. 20 gaztainondo ezberdin ateratzen badira, bakoitzetik bost bat txertatuko dira".

Modu horretan, gaztainondo barietate guztiak berreskuratzeaz gain, erresistentzia ere aztertu nahi dute. Hau da, mota bakoitzak gaixotasunei aurre egiteko duen gaitasuna. Izan ere, XIX. mendean oinbeltzak (gazteleraz, tinta) eragindako kaltearen ondoren, 1947tik aurrera txankroa ere sartu zen, gaztainondoen populazioaren zati handi bat akabatuz. Aurretik gainbehera zegoen jarduera asko galdu zen horren ondorioz.

Gaztainondoetatik, gainera, ez dituzte gaztainak bakarrik aprobetxatu nahi, zuraren industriarako ere interesgarria izan daitekeela aitortu digu Azpirozek: "Zuraren industriarako ere aztertu nahi dira gaztainondoak. Asturiasen, Galizian eta Portugalen, adibidez, handitu egin da gaztainen merkatua".

Berueten, Orokietan, Alkotzen eta Lantzen 4 elkarrizketa egin dituzte, 7 baserritarrekin.

"Oso interesgarriak izan dira", Joseba Ibargurengoitia sareko kideak esan digunez.

### **Elkarrizketatu dituztenen artean, Martzelo Beloki Perkaz**

Pulunpen izan genuen Martzelo Belokiren lekukoa jasotzeko aukera. Xabier Azpirozek esan digunez, berarekin ere hitz egin nahi izan dute Euskal Herriko Hazien Sarekoek. Hona hemen gaztainen kulturaz esan zigunaren mokadu txiki bat. Gehiago jakiteko 179.Pulunpera jo, edo QR kodigoa eskaneatuz gero, Esan Erraneko Egun Ero irratsaioan egin genuen erreportajea entzun dezakezue.

*Martzelo Belokiren etxean Irurtzunen saltzen zituzten gaztainak. "Aita Irurtzuna joaten zen astero. Bi zaku edo hiru, segun, eta hortxe aritzen ginen! Sardearekin jotzen, morkotsa puskatzeko. Aita esperoan Irurtzuna jaisteko, eta gaztainekin joan, eta etxera falta zena ekartzen zuen. Irurtzunen, ferietan, igual mila kilo gaztaina inguru zakuetan eramaten zuten!". Etxeetan oinarritzko elikagaia ere bazen, Beltranean, esate baterako: "Afaltzeko, edo patata, edo azak, horren atzean gaztainak, eta kazo bat esne, eta hori zen afaria, askotan. Zartanean egiten genituen kasik egunero".*



Martzelo Belokiri 2018an  
egindako elkarrizketa entzun



## Autoa elkarbanatzeko egitasmoa martxan jarri dute Odietan

Udalean batzorde berri bat sortu dute, Trantsizio Energetikorako Batzordea, eta handik atera da proposamena. Ziro Azkarate batzordeko kideak Esan Erran irratian azaldu zuenez, proiektuaren lehen fasean daude orain: "Udalak aztertu egin beharra du **mugikortasunaren** aldetik zein den hemengo egoera. Bitartean, Whatsapp talde bat martxan jarri dugu, autoa **elkarbanatzeko** prest dagoen jendea bertara batzeko", zioen.

Basaburuko Patxi Mirandak antzeko proiektua jarri zuen martxan iaz bere eskualdean. Kudea>GO izeneko aplikazioa sortu zuen herritarrek autoa partekatzeke. Hain zuzen, Mirandarekin harremanetan daude Odietan egitasmoa nola garatu dezaketen aztertzeke.

Momentuz, esan bezala, Odietako herri guztietako biztanleak gonbidatu dituzte Whatsapp taldean parte hartzera eta autoa elkarbanatzen hastera. "Egunero hartzen dugu autoa, eta askotan, ohartu gabe, bizilagunaren bidaia bera edo oso antzekoa egiten dugu", dio Azkaratek. Bidaia horiek hobeki aprobetxatzea izanen da helburua. Horretarako **pentsamoldea** ere aldatu beharra dagoela uste du **egitasmoko** kideak: "Malguagoak izan beharko dugu beste norbaitekin autoa elkarbanatu behar dugunean, orduetegi aldetik-eta".

### Hiztegia

- **Elkarbanatu:** compartir
- **Mugikortasun:** movilidad
- **Egitasmo:** proyecto
- **Pentsamolde:** mentalidad



CAMPING - KANPINA

**IZARPE**

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

### ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburgesak...



eta.... Ostegunero  
8ak aldera Pintxo Pote



Eguneko Menua  
Asteburuko Menu berezia  
Pizzak, Hanburgesak  
Plater konbinatuak  
Paellak....  
eta askoz gehiago



**Euskara  
errazeko  
artikulua**

## Oztopoak oztopo, aurten ere Olentzero ikusteko aukera izan dugu

Leku batzuetan leihotik edo balkoitik ikusteko aukera izan dute, Larraintzarren eta Lantzen kasu. Beste batzuetan, Eritzen esate baterako, herriko plazan baina segurtasun neurriak betez. Aurten ezin izan diogu gertutik eskutitza eman, beraz, baina Olentzerok eskualdera hurbilduko zela jakitera eman zuen eta hala egin zuen.

Urtero bezala, abenduaren 24an zuten hitzordua Olentzerok eta Mari Domingik Euskal Herriko umeei opariak banatzeko, eta eskualdera ere hurbildu ziren.

Eritzen, Atetzen, arratsaldeko 18etan izan zen hitzordua. Herriko plazara hurbildu zen Olentzero, eta bertan izan ziren umeak, musukoa jarrita eta segurtasun neurriak betez. Hori bai, musukoaren azpian "inoiz ikusi ez den irribarrerik handiena" eramateko eskatu zien haurrei, "oraindik ez baita asmatu irria kenduko digun musukorik".

Lantzen etxetik ez ateratzea eskatu zien, baina kalejira egin zuen herrian eta leihoetara eta balkoietara ateratzeko eskatu zien, agurtzeko.

Antzekoa izan zen etorrera Larraintzarren, Olentzero eta Maridomingi etxez etxe joan ziren opariak banatzen. Ataria utzi zituzten eta han ere leihotik eta balkoitik agurtu zituzten.



▲ Mari Domingi eta Olentzero Imotzen, pasa den urtean


Imotzen herriz herri egin zuten hitzordua. Goldaratzen hasi ziren arratsaldeko 17etan. Ondoren, Latasa (17:30ean), Eraso (18etan), Etxaleku (18:30ean), Oskotz (19etan), eta Muskitz (19:30ean) igaro zituzten.

Aurretik, abenduaren 22an, eskolako azken egunean, Ohianzabaletik ere pasa ziren Olentzero eta Mari Domingi.

### Hiztegia

- **Ataria:** portal, en la puerta de casa
- **Hitzordua:** la cita
- **Igaro:** pasar

▼ Ana Galarren bineta  
olentzero express







## Atetzen kultur etxea egiteko proiektua martxan

Eritzeko eskola zaharrean dute etorkizuneko kultur etxe hori egiteko asmoa. Kontzejuarena zen eraikina orain arte, baina proiektua martxan jartzearekin batera Udalari egin diote zesioa. Udalaren ideia da bertan erabilera anitzeko bi gela, gazteentzako txokoa eta herritarrentzako biltoki berri bat eraikitzea.

Proiektua oraindik hastapenetan dago eta gauza asko zehazteke daude. Kontzejuak bere garaian kanpotik eraikinaren berritze lanak egin bazituen ere, barruko obrak hasiko dituzte orain, proiektua aurrera ateratzeko lan handia egin beharko baita. "Bailara

osoarentzat izanen den proiektu zabala da burutan daukaguna. Atetzek ez zuen orain arte horrelako lokalik, eta honek aukera emanen liguke ikastaroak antolatzeke, hitzaldiak egiteko nahiz bestelako ekimenetarako", zioen Iban Baztanek irratian. Gazteek eraikinean erabiltzen duten txokoa bertan mantenduko litzatekeela ere gaineratu zuen Atezko bizilagunak elkarriketan.

Herritarren arteko harremanak estutzea ere izanen du helburu proiektu berriak, bailararako elkargune berria ekarriko baitu kultur etxeak.

## Bideoklip berria argitaratu du Ekaitz Astizek

Ekaitz Astiz rap-kantari iraizoztarraren proiektu berria da ZKH. Martxoan atera zuen maketa berria, 'Errebueltak' izeneko, eta maketa hartako '30ak hiltzen' abestiaren bideoklipa da orain sarean ikusgai jarri duena. Ibai Altunak eta Borja Lezaunek zuzendu, ekoiztu eta editatu dute ikus-entzunezko lana, eta irudiak Iñaki Larraiotz ultzamarraren musika estudioan grabatu dituzte.

Euskadi Gazteako maketa lehiaketara aurkeztu zituen maketako hiru abestiak Ekaitz Astizek, eta sarean entzungai daude geroztik. ZKH bakarkako proiektu berri honetan sartu aurretik ere, rap-aren munduan aritu izan da Astiz, Goienetxe Anaiak taldean urteak egin zituen.



Iñaki Larraiotzen Ultzamako estudioan grabatu dute bideoklipa





## Mendialdeko azoka ibiltariari amaiera eman diote, momentuz

Sei azoka egin dira osotara: Latasan, Jauntsaratsen, Goizuetan, Baraibarren, Lekunberrin eta, azkenekoa, Leitzan. Ekimen honen lehenengo edizioa izan da eta balorazio oso ona egin dute Cederna Garalurretik: "Bataz beste 500-600 pertsona hurbildu dira, eta beraz, harrera ona izan du kontsumitzaileen artean. Bereziki hurbileko jendea etorri da, ingurukoa".

Izan ere, Cederna Garalurreko Amaiur Unzuetairen hitzetan horixe bera zen helburua, gertukoek inguruan dituzten ekoizleak ezagutzea, eta harreman hori sendotzea. Helburua bete dela uste du Unzuetak.

Emitza ona izan da ez bakarrik kontsumitzaileen parte hartzeagatik, baita ekoizleenagatik ere: "20-30 postu bitartean izan ditugu. Horrek erakusten du eskualdean badugula produktua. Jende gehiago lehen sektorean hastea ere nahi dugu. Eta, noski, lan duin bat ere bihur dadila".

Amaitu da, beraz, Azoka Ibiltariaren lehenengo edizioa, baina hurrengo urtera begira azokekin jarraitzeko asmoa dute. Momentuz, otsailera arte, hausnarketa eta bestelako lan batzuekin jarraituko dute, eta ondoren, berriz jarriko dira martxan. Azokak lehen sektorea bultzatzeko planaren izarretako bat izan dira. Ondoren, ekoizleen elkartearen aurkezpena etorriko da.



▲ Leitzan izan zen Azoka Ibiltariaren azken jardunaldia



Begoña Okiñena Etxeberria

ABOGADA



## Landa legedian aditua

- Erretiro edo jubilazio eskaerak
- Lanerako ezintasunak
- Herentzien tramitazioak
- Zergen betetzeak
- Erregistroak
- Errekurtsoak

948 503 155

b.o.etxeberria@gmail.com



FONDO EUROPEO AGRÍCOLA DE DESARROLLO RURAL:  
EUROPA INVIERTA EN LAS ZONAS RURALES

Nafarroako Gobernua  
Landa Garapenerako, Ingurumeneko  
eta Toki Administrazioa Departamentua

Gobierno de Navarra  
Departamento de Desarrollo Rural,  
Medio Ambiente y Administración Local



## Bateragune auzia errepikatzearen aurkako elkarretaratzea egin zuten Jauntsaratsen

Euskal Herriko beste hainbat tokitan bezala, abenduaren 19an elkarretaratzea egin zuten gure eskualdean ere Bateragune auziko kideei elkartasuna adierazi eta demokrazia aldarrikatzeko. Jauntsarasko Oihanzabal eskolaren atarian izan zen elkarretaratzea, eta hamarka lagunek egin zuten bat deialdiarekin.

Espainiako Auzitegi Gorenaren erabakia salatu zuten bertan. Rafa Diez, Miren Zabaleta, Sonia Jacinto, Arnaldo Otegi eta Arkaitz Rodriguezen aurkako auzia berriro errepikatzea erabaki zuen auzitegi horrek. Hautsak harrotu ditu erabakiak, eta mobilizazio ugari egon dira Euskal Herriko txoko askotan.



Oihanzabal eskolaren atarian egin zuten elkarretaratzea ▲

## Herrietan ekimenak antolatu ditu Sarek ilbeltzaren grako

Euskal preso politikoen etxeratzea eskatzeko urtero Bilbon egiten den manifestazioaren ordez, ekimen deszentralizatuak eginen ditu aurten Sarek. Ilbeltzaren 9an izanen dira ekimenok herrietan, eta gure eskualdean ere mobilizazioak eginen direla aurreratu digute.

Basaburuko eta Imozko Sare lanean ari da ahalik eta herri gehien ekimenera batu daitezen. Momentuz, Gartzaronen, Aizarotzen, Berueten, Itsason, Udaben edo Beramendin –oraindik erabakitzeke dago bietako zeinetan–, Etxalekun, Urritzan eta Jauntsaratsen mobilizazioak eginen direla baieztatu dute. Dena den, eskualdeko herri gehiagoren erantzunaren zain zeuden antolatzaileak Pulunpe alea ixterakoan.

Koronabirusak eragindako egoera dela eta, Bilboko manifestazio jendetsua bertan behera uztea erabaki du aurtengoan Sarek, baina tokiko mobilizazioen bidez urtero Bilbora joaten den jende guzti hori bildu nahi dute.



Urrian martxa egin zuten eskualdean Izan Bidea ekimenaren baitan ▲





## Auzako Behikoa harategiak bi saski banatu ditu

Abenduaren 22an egin zuten zozketa.

Jauntsarasko Amaia Olaguerentzat izan da, eta txikia Ilarregiko Javier Altunak jaso du.



Urrian martxa egin zuten eskualdean Izan Bidea ekimenaren baitan

## Larraitzarko ikastetxeko ikasleek zozketa egin dute ikasbidaiarako dirua lortzeko

10 saski banatu zituzten abenduaren 22an. Zenbaki saridunak hurrengo hauek izan dira: 0435, 1170, 2700, 2160, 1446, 0128, 0020, 1020, 2550 eta 0635.

Pulunpen honako argazkia argitaratzeko eskatu digute, zozketa antolatzen lagundu dieten enpresa eta dendei eskerrak emateko, saskiak osatzeko produktuak eta sariak eman baitizkiete, patrozinioaren truke.

### GABONETAKO SASKIEN ZOZKETA



#### LAGUNTZAILEAK:



**JAUNTSARASEKO FARMAZIA - MUSEO EZKURDI MUSEOA  
AUZAKO ILEAPAINDEGIA - TXASENEKO BORDA - AMASULUK  
ARRARATSKO ILEAPAINDEGIA - EKOLLAGOONDO - JOSTHARI  
ERASOKO ZAPATARIA - PELUQUERIA ELENA IRAIZOZ  
**ESKERRIK ASKO GUZTIOI****

## Haizesorgailuen «landaketa» basoan, energiatrantsizioranzko bide okerra

2020ko abenduak 1

Batzuetan zuhaitzek ez omen digute basoa ikusten uzten, hala dio esaera ezagun batek. Baina basoa hor dago, lasai, behar dugula baitaki.

Basoan ongi etorriak izan gara beti eta eskuzabala da gurekin, behar duguna ematen digu: berotzeko egurra, eraikuntzarako zura, elikagaiak, sendagaiak eta abar. Basoak lasaitasuna ere eskaintzen digu, harmonia. Zuhaitzek osatzen duten komunitate hauek naturarekin eta geure buruarekin bat egiteko aukera ematen diguten azkeneko tokiak bihurtu dira kasik. Hementxe sortu dira baso bainuak edo skinlove deituriko terapiak, onura fisiko eta emozionalak dakartzkigutenak, Japonian sortu baina gurera ere heldu direnak.

Zoritxarrez, bertako hainbat baso arriskuan ikusten ditut. Sacyr enpresak Iruñerriko hainbat menditako gailurretan (Ortzikasko, Aldaun...) haizesorgailuak jartzeko bost proiektu mahai gainean jarri ditu. Mendi horietako gailur asko basoek estaltzen dituzte, eta, horrela ez denean ere, proiektu hauek aurrera eramateko ireki beharreko sarbideek eragin latza izanen lukete mendi magal horietan dauden basoetan. Gailur hauek hegazti eta saguzarren migrazio ibilbide nagusietan kokatuta daude; ondorioz, haizesorgailuekin talka eginda hilko liratekeen animalia hauen kopurua handia litzateke.

Noski, proiektu hauek energia berriztagarri eta klima aldaketaren lelopean aurkeztu dizkigute. Mesedez, garbitu ongi betaurrekoak eta argi ikusiko duzue klima aldaketaren aurkako borrokan basoak ezinbestekoak direla, CO2 hustegi naturalak direla eta, gainera, energia berriztagarrien baliabide direla ere.

Amalurra eta pertsonak aintzat hartzen ez dituen trantsizio energetikoa aldaketa teknologikoa izango da soilik, eta energiaren merkatuak oligopolio izaten jarraituko du. Ezinbestekoa da tokian tokiko energia berriztagarriak sustatzea, energia sistema deszentralizatuak (energiaren galera handi bat sortzen den tokitik kontsumitzen den tokira garraiatzen galtzen da) eta demokratikoak.

Agian honek guztiak kapitala metatzean oinarritutako sistema hau kolokan jartzea dakar, finean muga fisikoak dituen planeta batean hazkunde ekonomikoa mugagabe batean oinarritzen baita.

## Urtarrilaren bukaeran hasiko da paleta goma eta frontenis txapelketa



Emakumezkoen finalaurrekoak ▲

Imozko eta Basaburuko Kirol Batzordeak ez du oporrik hartzen. Abenduaren bukaeran eta ilbeltzaren hasieran jokatu ziren Pilota Goxoa txapelketako finalak, eta txapelketa horri amaiera ematerako zabalik zuten hurrengoan izena emateko epea: Paleta goma eta frontenis txapelketa.

Urtero bezala, emakumezkoen frontenis txapelketan maila bakarra egonen da, eta gizonezkoen paleta goma txapelketan, berriz, bi maila. Izena emateko epea urtarrilaren 17an jarri dute. Interesa dutenek telefono zenbaki hauetara deitu beharko dute: 680 88 45 29 (Zapa) edo 659 443 664 (Zepelo).



lazko frontenis eta paleta goma txapelketaren amaierako argazkia ▲





## Memoria landu nahi izan dute Dani Martirenak eta Ana Ibañezek bere azken liburuan

Amonarenean Kea argitaratu berri dute Dani Martirenak eta Ana Ibañezek. Oroitzapenak landu nahi izan dituzte, memoria 'txiki' hori aldarrikatu, aldi berean, memoria kolektiboari ere keinu bat eginez. Bi zatitan banatzen da ipuina, eta adinari mugak jarri gabe, umeen eta helduen arteko irakurketa partekatua sustatu nahi du. Narrazioak lau biloben, lau lehengusuen, igandeko plan berezia kontatzen du: amonarenera doaz kremazko eta marrubizko hostopila prestatzera. Baina, non ote da aitona?

### • Zer kontatu nahi izan duzue ipuin liburu honetan?

Memoria aldarrikatu nahi dugu, baita memoria 'txikia' ere, norberaren oroitzapenekin egiten den hori. Ez zaigu iruditzen oroitzapenak gehiegi landu direnik haurren literaturan eta horixe egin nahi genuen. Guztion memoriaz hitz egin, baina gure protagonisten memoria 'txiki' horretatik abiatuta.

### • Eta oroitzapen horietatik erreparaziorako nahia ere sumatu dut, aitonaen historia horrekin...

Narrazioaren hezurdura hurrengo da: lau biloba, lau lehengusu dira tartean, eta igandero-igandero doaz amonaren etxera. Amonarenean beti egoten da piztuta sukalde

ekonomikoa, eta amonarenean beti egoten da tximinia kea dariola. Igandero plan horretan amonak beti prestatzen du kremazko eta marrubizko hostopila bilobekin eta hori izaten da haien irrika. Eta behin, hostopilo hori dastatzera joaten direla, igandero egiten duten bezala, 'aitona non dago?' galdera sortzen da. Amonak aitona gerran hil zutela kontatzen die. Hori da gerrari egiten zaion aipamen bakarra. Pentsatzen dugu gerran norbait hil zuten etxe horietan horrelako zerbait gertatu zela noizbait, alegia, bilobek galdetu zutela ea non dagoen aitona, eta amonak azalpen minimo bat eman beharrean izan zela. Hori da guk minimoan ere utzi nahi izan duguna. Liburuak badu bigarren istorio txiki bat.

### • Marrazkiak egiteko prozesua nola izan zen?

Ilustrazioak orain arte Anak egin dituenetatik ezberdinak dira. Bere asmoa zen ia zirriborroan uztea, hor bukatutzat ematea. Oroitzapenak betiere lausoak direlako, ez dira erabat definituak. Batzuetan zerbait gogoratzen duzu modu batean, eta agian bihar gertakari hori bera beste modu batean gogoratzen duzu, lausotzen zaizu. Amona hil bazaizu, nire kasua da hori adibidez, kostata gogoratzen dut haren aurpegia. Argazki batera jo behar duzu benetan nola zen gogoratzeko. Eta horrexegatik utzi ditu ilustrazioak zirriborrotik hurbil. Barruko portadan argazki batetik tira egiten du, bere amonaren argazkia da, bera da inspirazio iturri liburuan, amonak moñoa du, bere amonak ere bazuen, txuri-txuria, zilarrezko kolorearekin, baina barruan bakarrik utzi nahi izan du argazkia, kanpora atera gabe, jolas hori egiteko: zer den oroitzapena eta zenbat errazten duen argazki txiki batek".



### Amonarenean Kea non erosi:

Gurean:  
Jauntsarasko  
Apeztegi berriko dendan

Iruñean:  
Katakrak, Karrika denda,  
Chundarata eta Elkar  
liburudendetan.



# Esne behien sektorea

## Ekoizle txikiak, pixkanaka desagertzen

Azken urteotan asko hitz egin da esne sektorean gertatzen ari diren aldaketez. Ekoizpen eredu industrialak geroz eta indar handiagoa ari da hartzen, behi esnea egiten duten abeltzain txikien kaltetan. Estatu mailan asko jaitsi da etxalde kopurua, eta gauza bera gertatu da Nafarroan ere: 1985ean 2.000 esne ustiategi inguru bazeuden, 2018-2019an 154 besterik ez ziren gelditzen, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Sergio Mugueta Lascarroren ikerketa lanaren arabera. Gure eskualdean ere, geroz eta gehiago dira esne behiak kentzen ari diren abeltzainak.

Lanzko Esteban Ariztegik duela zortzi bat urte kendu zituen behiak, bizitza osoa horretan jardun ondoren. Gauza bera egin behar izan du Alkozko (Ultzama) Antton Erbiti Garaikoetxeak duela gutxi, martxoan: "Sektore honetan biziraunen duen bakarra handia izanen da, txikioi ezinezkoa zaigu egungo prezioetan lehiatzea, oso merke ekoiztea eskatzen zaigulako", dio ultzamarrek.

Lanzko eta Alkozko abeltzainek txikitatik izan dute esne behiekin lotura, etxean betidanik izan baitzituzte. Erbitik guztira 130 bat buru zituen pasa zen martxora arte, eta egunean 2.000 litro inguru ekoizten zituen Alkozko nabean. Ariztegik, produkzio txikiagoa zuen Lantzen: 25 behi zituen etxeoko ukuluan.

### • Lantz: iraganean, esne behien erreinu

"Esaten da herri honetan kaka besterik ez zegoela, mundu guztiak ibiltzen baitzituen behiak kalean gora eta behera, eta dena gorotzez betea egoten zen", azaltzen du Ariztegik. Etxe guztietan izaten zituzten behiak garai batean, eta denek ekoizten zuten esnea etxerako eta saltzeko. Gaur egun, ordea, lauzpabost ekoizpen besterik ez direla gelditzen kontatu digute. Gauza bera Alkotzen ere.

Baina, zerk eragin du galera hori? Bi elkarrizketatuek adin eta osasun kontuak medio hartu zuten esne behiak kentzeko azken erabakia, baina badaude beste arrazoi batzuk elkarrizketan behin eta berriz errepikatu direnak: abeltzainei exijitzen zaizkien baldintza zorrotzak, egin beharreko inbertsioak, esnearen prezio baxua... "Osasun eta kalitate exijentziak ikaragarriak dira, eta produktua ordaintzerakoan hori ez da baloratzen. Ezinezkoa da horrela lan egitea: kalitatezko esnea ekoizteko nahitaezkoa da baldintza duinetan lan egitea", dio Erbitik.

Harrigarria da, adibidez, duela 40 urteko prezio bertsuan egotea esnea. "Duela 40 urte gehiago balio zuen esneak gaur egun

baino, eta orduan produkzio kostuak erdia edo gutxiago ziren", gehitzen du alkoztarrek. Horixe bera da nekazarien sindikatuetatik azken urteetan behin eta berriz salatu dutena: produkzio kostuen azpitik ordaintzen zaiela askotan, desagertzerak kondenatuz. Martxoan behiak kentzea erabaki zuenean, 30-31 xentimo ordaintzen zizkioten Erbitiri esne litroaagatik.

**“Duela 40 urteko prezio berean saltzen da egun esnea, eta produkzio kostuak erdia edo gutxiago ziren orduan”**



Duela zortzi bat urte kendu zituen behiak Lanzko Esteban Ariztegik ▲





## • Ekoizpen eredu intentsibo eta industrialia nagusi

Behi esneen sektorean gertatu diren aldaketak ongi islatzen ditu Lanzko ekoizleak azaldutako pasarte batek: "Lege bat atera zen, zeinak debekatu egiten zuen behiak etxeko ukuiluan izatea, garai batean bezala. Lehendik horrela geundenak jarrai genezakeen, baina ekoizpen berriek ezin zuten horrela funtzionatu". Gaur egun behi-esne produkzioan jarduteko eskatzen diren inbertsio eta azpiegiturak oso handiak dira, eta gazteek ez dute halako inbertsioetan sartzeko arriskurik hartu nahi. Ulertzekoa da.

Ildo berean, Ultzamako ekoizleak ere uste du esne enpresa handiei esne ekoizle gutxi eta produkzio handiagoak egotea komeni zaiela: "Haientzat errentagarriagoa da esne bila toki askotatik pasatu beharrean, toki gutxi batzuetatik pasatu eta horietako bakoitzean litro asko jasotzea", dio. Esnearen prezioa dagoen moduan, gainera, argi dago produkzio oso handia dutenek soilik jarraitzen dutela: "Kostuak ere txikiagoak dira enpresa handi horientzat: esaterako, pentsu askoz gehiago erosten dutenez, merkeagoa zaie guri baino". Aipatzekoa da, gainera, eredu industrialean behi bakoitzari geroz eta esne gehiago ateratzen diotela, eta ustiapen intentsibo horren ondorioz urte gutxiago bizi direla animaliak.

Azken batean, abeltzain txikiak esne enpresa handien mendeko bihurtu dituzte, haien prezio eta baldintzetara egokitzea behartu dituztelako. "Produktu galkorra da esnea, eta beraz, bai edo bai atera beharra duzu galtzen utzi baino lehen. Bota baino lehen edozein gauza egiten duzu", dio alkozotarrak. Enpresa handiek esnea hartzen dieten abeltzainak nahikoa estutzeko aukera dute, modu horretan. "Ni kooperatiba bateko



Esne behiak kendu eta haragitarakoak jarri ditu Erbitik orain

parte nintzen, esnearen zati bat guk eraldatzen genuen eta beste bat esne enpresei saldu, baina noski, prezioekin jokatzeko aukera handiegirik ez genuen hor ere", dio Erbitik.

Behi esne ekoizpenaren etorkizunaz galdetuta, biek ere ilun ikusten dute: "Gauzak ez badira aldatzen handiak bakarrik geldituko dira, akabo abeltzain txikiak. Lehen sektorea orokorrean izorratua dago, eta esne behiena, are gehiago", dio ultzamarrak. Administrazioetik laguntza gutxi batzuk jasotzen dituztela diote, baina baldintza duinetan aritu ahal izatetik urrun daudela. Apustu handiagoa egin beharko litzateke sektoreari eutsi nahi bazaio, gure elikaduran ez ezik ingurunean eta paisaia ere duen eragina kontuan hartuz. Herritarrek ere, beraien erosketarekin badute zer egin.



Antton Erbiti, Alkozko ukuilu atarian

## Esne kuotak eta nazioarteko merkatua

2015eko apirila arte, Europar Batasunak estatu bakoitzak ekoizti zezakeen behi-esne litro kopuru maximoa finkatzen zuen. 1986ean ezarri zen kuota sistema hori, eta milaka baserritarren desagerpena ekarri zuen: Espainiako Estatuari ezarritako kuota 4,5 tonakoa zen, baina bertan 9 milioi tona esne kontsumitzen ziren. Emaizta? Kontsumitzen zen esne kantitatearen erdia inportatzera 'behartu' zuten. Kuota sistemak handitzeko asmoa zuten abeltzainek txikiagoei kuotak erosi edo alokatzea ekarri zuen.

Bestetik, Espainiako estatuko sektorearen egoera ulertzeko kontutan izan behar den beste elementu bat irabazien banatzeko era da. Kanadan adibidez, esne ekoizleek irabazien %54a jasotzen dute. Estatu Espainiarrean, ordea, banatzaileek (%60 eta %90 bitarte) eta industriak jasotzen dute irabazien zatirik handiena. Gauzak honela, esnea ekoiztu duenak ez du marjina horren zatirik jasotzen.













## Gure xaharrak: ehun urtez gorakoak

100 urte. Mende bat. Zer da ehun urte? Unibertsoarekin konparatuz deus ez! Hutsa! Ja!

Eta gizakiaren historiarekin konparatuz? Hauts pikor bat, ikusiezina, hutsaren hurrengoa.

Eta edozein gizakiren mundu honetako aldiarekin konparatuz? Ai, ai, ai, oraingoan harrapatu nauzu. 100 urte aunitz da. Askok da. Izugarri da, eta izan da.

100 urtetara inor gutxi iristen da. Lehen denboretan ezinezkoa. Eta orain bertan ere adin hori, harrapatu ezina dela esanzen nuke. Zein jende gutxi iristen den 100 urtetara!

Esanak esan, gure alderdian sortutako multxo bat izan da adin horretara iritsi dena.

Nik lehenbizikoa ezagutu nuena, Frantxixko Mari Ezkurra Lasarte izan zen, 1995ean bete zituen 100 urte. Igoako kontzejuak omenaldi polita egin zion **Basaburuko eguna** ospatzen zen batean.

Hala ere, honen aurrekorik ere bada gure alderdian, hain juxtu, Sebastian Olaitz Zilbeti, Eritzeko Perutxeneko semea, Lizasoko **Iribarnera** (1) ezkondua. 1961eko urtarilaren 20an egin zituen 100 urte. Lizasoko kontzejuak omenaldi ederra prestatu zion. Kontu honek baditu 59 urte.

Eta askoz ere beranduago, 2010ean hil zen beste lizasoar bat 109 urtetan, Maria Espelosin Oskotz. Maria, **Antsoneko** alaba zen, ezkongabea, eta bakarrik gelditu zenean, Madrilen zituen ahaide batzuek ereman zuten berekin. Madrilen hil zen, baina hemen lurperatzea nahi izan zuen eta hala egin zuten. Honen adinik inork ez du harrapatu!

### Beste batzuk

Gogoan ditugu beste batzuk ere, esate baterako Odietan hor ditugu Mariano Ziganda Ostitz, 2010. urtean hila 100 urtetan, Latasako **Gorrontxenekoa**, edo Teresa Etulain Orrio, Gelbentzuko bentako etxeakoandrea, 2018ko azaroaren 24an, 101 urtetan.

Ultzaman, aldiz, Antonio Eugi Jauntsarats, Arraizko bentetako **Fermiñenekoa**, 101 urtetan hila 2012an.

Eta Basaburuan, Jose Oitz Nuin, Orokietako **Ankamotza etxekoa**, 2013an 101 urtetan hil zena 102 urte betetzeko hilabete bat falta zuela.

Eta Imotzen, Filomena Erbiti Lopetegi, Etxalekuko **Marijoaneko** alaba 100 urtetan, 2020an hila; eta zer esan, 2019an, 104 urtetan hil zen oskoztarraz? Juanita Pagoto Gartzaron, Etxotoko etxeakoandrea. Eta aipatzea merezi duelakoan, nahiz Iruñean bizi, Filomena, aurrekoaren ahizpa, 101 urtetan hil zen 2019ko apirilaren 20an.



Iraizozko Juanita Gofii Olague, **Barberiako**.  
Iaz 100 urte bete zituen.



### • Oraindik bizirik direnak

Ultzaman, Juanita Goñi Olague dugu, Iraizozko **Barberiakoa**, aurtan 100 urte betetakoa.

Nahiz hemen ez bizi, honako hauek ere aipatu gabe ezin utzi:

Basaburuan, Gregoria Azpirotz Rekondo, Jauntsarasko **Martikonekoa**, 101 urtetan Biarritzen bizi dena, oraindik ere buru argiarekin.

Eta denetan zaharrenak, honako hauek biak, 104 eta 105 urtetakoak:

Oliva Mariezkurrena Etxegia, Igoako **Otsanbelako bordan** jaioa 1916ko maiatzaren 2an eta Arrarasko **Urrutiaberrian** bizitutakoa. Hemendik Berastegira alde egin zuen bere familia luzearekin (11

umerekin eta Berastegin besteren bat ere izan zuen, bi ez baldin baziren) eta bertako **Lurgain** deritzan bordan bizi da.

Eta Juana Barberia Aranguren, **Iriberrikoalaba**, 1915eko uztailaren 6an sortua. Atallura, **Atallumendi bordara** ezkonduakoa, orain alargun dagoena, Iruñeko xahartegi batean.



**Txurdan**

(1) Iribarnea edo Barbernia. Izen zaharrena Iribarnea da.

**OHARRA:** *Lantzen eta Anuen ere galdetu dugu baina ez dugu informaziorik jaso. Nonbait ez dugu jakin toki egokian galdetzen. Ea, udalerrri horietako norbaitek laguntzen digun eta ehun urtetara iritsi direnen berri ematen digun!*



▲ Lizasoko **Antsonea**. Etxe honetakoa zen Maria Espelosin Oskotz, 109 urtetan hil zena.



▲ Teresa Etulain Orrio, **Gelbentzuko Bentakoa**, 2018an hil zen 101 urtetan.

### NAFARROAKO ZAHARRENA

1975eko urtean gure alderdiko bat izendatu zuten "Nafarroako amaxi". Petra Rienda Ortigosa izan zen hori. 103 urte bete zituen oskoztar honek. Petra, Izako Eritzeko Norteko trenaren etxettoan jaioa zen, 1872ko urtarrilaren 18an. Gero familia Oskotza etorri zen 1880an edo aurretxoan, **Zarmargiñenera**, nekazari, maistar, sei bat umerekin. Eta hemen beste lau ume jaioko ziren. Denetara, ez dakigu seguru, baina hamar behintzat bai.

1897. urtean ezkondu zen Oskotzen, 25 urtetan, Juan Ignacio Madoz Oriozabalarekin, 28 urtekoa eta lhabarren bizi zena hain zuzen. Honek gurasoak Beramendin bizi zituen, Etxalekuko erroan.

Madoz-Rienda familia hainbat herritan bizi izan zen, lhabar, lhaben, Itsaso, Udabe eta Zuhatzun, eta zortzi seme-alaben guraso izan ziren.

Zahartutakoan, Arrotxapera joan zen azken urteak bere alaba gazteenarekin pasatzera.

Familia luzea alde batetik eta bestetik lana eta ardura. Ez zuen besterik ikasi, baina beti, zahartu artio, izan zuen izate alai.

Lana aipatu dugu, eta gazte denboran ere, Oskotzen, halaxe izan zuen: bere anaietako birekin, Baldomero eta Ramonekin, urtero, udazkenean, Artaxoara edo Mañeru aldera joaten zen mahats biltzera, oinez, eta itzuli ere bai, bi egunez; lehen saioan Artaxoa-Otsakar egiten zuten, 40 kilometro, eta bigarrena Otsakar-Oskotz. Ai, nolako alaitasuna urrutitik Oskotz ikusten zutenean! Eta nekez irabaziko soldata poltsan, gurasoek emateko. Baina ez soldata soilik, ibilaldia "erosoago" egiteko edo, esportako bat mahats ekartzen omen zuten etxekoek oparitzeko. Mahatsa gauza exotikoa izaki garai hartan!

Nolako ibilerak gure aurrekoenak, eta pozik bizitzeko gainera! Beren biziak guretako etsenplu ederrak dira! Badugu zer ikasi, bai horixe!!!





## 1886. urtean



## Udal eta Diputazioko funtzionarioak:

**Udal idazkaria:** Jose Artze Bengoetxea, Auzakoa, 1831/10/24an sortua, Francisca Agirrezabala Irigoienekin ezkondua (Francisca 1842/10/8an sortua) Hau Lizasokoa zen, Jose Ramon Agirrezabala bertako notarioa izandakoaren alaba.

**Farmazialaria:** Felipe Tornaria Bicuña, 1830/08/20koa eta Iraizozkoa. Honen anaia, Pedro Juan, Iraizozko maisua, Luis Luciano Bonaparteren laguntzailea izan zen.

Bi aldiz ezkondua, Lehenean Aguerrebere batekin, Elgorriagakoa; eta bigarrenean Juana Tornaria Maritorea, Iraizozko ilobarekin.

**Mendi zeladorea** (Diputazioko funtzionarioa) Jose Askuntze Arteaga, 1856/03/18an sortua. Orikaingoa.

**Bidezaina, kamineroa:** Cruz Bidaurre Munarritz, 1857/11/14an sortua. Ziraukikoa

**Notarioa:** Jose Andres Ibarguren Urrunzuno, 1859/06/02koa, Zumaiakoa. 7 urte zeramatzen hemen. Hamar bat urte egin zuen Lizason.

Eta bukatzeko ez genuke inola ere apeza atzendu nahi: Don Juan Jose Igoa Nuin, Lizasokoa, 1831/04/01ean sortua, 54 urtekoa. Honek egin zuen eliza berria.



Kakaoa xehatzeko harrizko almaiza ▲

### Eta azkeneko zerrenda

#### Karabinero familiak

-Antonio Garcia Arague, Casalla de Sierrakoa, Sevilla, 1839/06/13an sortua (Maria Cruz Aldaia Iribarne oiaregiarrarekin ezkondua)

-Francisco Estevez Gomez, 1843/07/28an sortua, Pontevedrakoa (Andrea: Teresa Buin Sanz, 1849/10/13an jaioa, Alquezarren, Huescan). Urte bat zeramaten hemen.

Karabineroak, ez da harritzekoa, nonahi ikusi ahal izan ditugu. Gu, jende bihurriok, erretoan sartzeko indar okupatzailea igortzen zuten gurera. Bai, gure ona nahi arrotzek! (Oharra: garai berean Jauntsaratsen baziren 5 karabinero; eta gure alderdiko herri gehiagotan ere baziren)



**Txurdan**

#### OHARRA:

Fotografiak **Argizille etxeko** semea den Jose Ignacio Ariztegik utzi dizkigu.

#### Hiztegia

- **Mendea:** Gizaldia, siglo
- **Arrunta:** Común
- **Udalerria:** Municipio
- **Alegia, hots:** Es decir
- **Argizarigilea:** Cerero
- **Merkataria:** Comerciante
- **Okina:** Panadero
- **Udal idazkaria:** Secretario municipal





## Gaztandegi berria eskualdean

Goldarazko (Imotz) Etxeberriako losu Ollok jarri du gaztandegi berria martxan. Betidanik izan dituzte ardiak etxean, eta orain arte kanpoko gaztandegiei saltzen zieten esnea, baina koronabirusak eragindako krisiak fitxak mugitzera behartu ditu. Proiektu berriari gogoz eta ilusioz ekin diotela adierazi digu gazte imoztarrek. Oraindik gaztandegiari eta gaztari berari izenik jarri ez badiote ere, hurrengo hilabeteetan guztia zehaztua izatea espero dute.

### •Noiz eta nondik nora sortu zitzaizuen gaztandegi berria martxan jartzeko ideia?

Martxoan konfinamendua iritsi zenean ordu arte esnea eramaten ziguten enpresek gaztak saltzeko arazoekin zebiltzala eta produkzioa pixka bat jaisteko eskatu ziguten. Orduan bururatu zitzaigun proiektu berri hau martxan jartzeko ideia. Asmoa da bertatik bertara, hurbileko jende ezagunari saltzen hastea.

### •Zerbait ona ekarri du konfinamenduak, beraz?

Bai, bai, gauza positiboak ere atera ditugu prozesu horretatik. Jendeak geroz eta gehiago galdetzen digu ea arkumeak baditugun, etxeko produktuak erosten dizkigute... Uste dut duela urtebete hori ez zela horrenbeste gertatzen, eta beraz, badirudi pixkanaka gauza hauek aldatzen doazela.

“ **Nekazaritza ikasketak egin eta gero erabaki nuen abeltzaintzan hastea** ”

### •Gaztandegi proiektua berria bada ere, ardiak aspalditik dituzue, ezta?

Beti izan ditugu ardiak etxean, lehen aita eta ama zuten ardura, eta garai hartan behiak ere bagenituen gainera. Gerora, nik nekazaritzako ikasketak egin nituen, eta duela hamar urte bukatu nituenean, abeltzaintzaren mundu honetan sartzea erabaki nuen.

### •Zailtasunik izan duzue gaztandegia irekitzerakoan?

Ez, ez dugu inongo zailtasun edo oztoporik izan. Alderantziz: Udalak erraztasunak eman dizkigu, eta berdin osasun baldintzen aldetik

ere. Pentsatzen dut egungo egoera ikusita, gauzak azkarrago eta errazago egiteko aukera eman digutela, hainbesteko trabarik jarri gabe.

### •Inbertsio handia egin behar izan duzue?

Beno, diru bat jarri behar izan dugu gaztandegia martxan jartzeko, tresneria lortzeko. Dena dela, transformazio guinea ez da oso handia; gure asmoa da esnearen produkzioaren zati bat kanpora saltzen jarraitzea, eta beste zati batekin gaztak guk gerok ekoiztea. Oraindik frogak egiten gabiltza. Esne ontziratua ere salduko dugu gaztanbera egiteko, eta jogurtak egitea ere bada asmoa.



Nekazaritzako ikasketak egin eta gero hasi zen losu Ollo abeltzaintzaren munduan ▲

# Gari Sarrazeno krepak

Sulaldaritza



## Negurako postre bikaina

Negurako postre bikaina dira gari sarrazenozko krepak. Proteina asko dituen zereala da gari sarrazenoa, eta hori horrela, sabela berotzen du erraz, Biltegiko Baietz kooperatibako kidea den Idoia Jusuek azaldu digunez. Sagarra, platanoa eta fruitu lehorrak aukeratu dituzte krepak betetzeko. Postre osasuntsua, beganoa, eta glutenari alergia diotenendako modukoa. Idoia Jusuek egin digu azalpena, baina sukaldaria Eva Fernandez izan dugu. Esaten digunez, kasu honetan postrerako prestatuko dugu, baina gatz botaz gero, gaztarekin edo barazkiekin jateko ere egin daiteke.

### OSAGAIK

**Gari sarrazenoa: 150 gr**

**Edari begetala  
(soja, olo edo arroz-edaria): 400 ml**

**Kanela pixka bat**

### KREPAK BETETZEKO:

**Platano xerrak**

**Sesamo tahinia (krema)**

**Eguzkilore haziz egindako krema**

**Eztia edo agave siropea**

**Sagar xerrak**

### APAI NTZEKO:

**Txokolatezko ur krema  
esnearekin eta fruitu lehorrak.**

### • PAUSOAK:

1) Krepa egiteko: Aurreko gauean gari sarrazenoa edari begetalarekin jarri gatz eta kanela pixka batekin. Orain, hidratatutako zereal krema masa likido bat geratu arte irabiatu eta edari begetal gehiago botako diogu. Ez du oso lodia gelditu behar, nahi bezain beste edari bota dezakegu likidoago nahi badugu. Zartaginean ongi zabaldu behar da krepa egiteko, horregatik hobea da likidoago egotea.

2) Sagar xerra batzuk zartaginean eginen ditugu ur, olio, gatz eta kanela pixka batekin. Gatzak bere zukua eta azukrea aterako dizkio sagarrari, eta urak bigundu egiten du. Kreparen barruan sartuko dugun osagaietako bat hori izanen da. Gogoratu, krepak platanozkoak edo sagarrezkoak izanen direla.

3) Krepa eginen dugu orain. Horretarako, gari sarrazenozko masa likidoa zartaginean eginen dugu. Olio tanta batzuk bota eta ongi zabaldu zartaginean, masa likidoa ez itsasteko. Ez da gehiegi bota behar, katilutxo bat, masa zartaginean zabaldu eta krepa fin-fina gera dadin. Behar bezala zabaltzeko zartagina zirkuluak

eginez astindu beharko dugu. Sua nahiko altua jarriko dugu, zartagina ongi berotzeko. Ertzak altxatzen hasten zaizkionean krepa ongi egina dago. Espatula batekin eman diezaiokegu buelta.

4) Apaintzeko: txokolate krema. Txokolatea edari begetalarekin deseginen dugu suan, lapiko batean. Kasu honetan txokolate ekologikoa erabili dugu. Fruitu lehor batzuk txikitu, adibidez pistatxoak eta urrak.

5) Krepe pare bat gehiago egin, platano xerrak ere moztu eta krepak bete. Krepatzuetan: Erdian eguzkilore hazi krema jarriko dugu, gainean sagar xerrak, ezti pixka bat, eta krepa biribilkatuko dugu. Beste batzuetan, tahinia (sesamo krema, gurinaren ordez erabil daiteke eta oso osasuntsua da) lerro bat jarriko dugu kreparen erdian, gainean platano xerrak, eta eztiaren ordez agave siropea jarriko dugu. Hauek ere biribilkatu.

6) Aurkezteko: krepak erditik zatitu eta gaineratik txokolatezko ur krema eta fruitu lehorrak bota.

▼ Gari sarrazenozko krepak







## Zure umeek ikasiko ote dute euskaraz?

Zure baitan dago. Zure baitan, eta ez umearen baitan. Bere nahiaren eta borondatearen baitan dagoela iduritzen bazaizu ere, ez da horrela. Zure esku dago dena.

Zu euskalduna izanik, umea erdaraz hezten baduzu, nekez ikasiko du euskaraz. Hizkuntza guziak erabiliz ikasten dira. Eskolako ez da aski. Eskolara euskaraz jakinda igorrita ere, erdaraz berehala ikasten dute, bertara joaten diren ume gehienak erdaldun huts-hutsak baitira.

Gaitz izanen du eskolan euskaraz ongi ikastea, eta ia seguru etxetik eramanen duen euskara atzendu eta euskañola du ikasiko (1) Gure alderdian hori gertatzen da, **zaldia saldu eta astoa erosi**, euskara ahanzi eta mordoiloa ikasi.

Etxean, jo eta ke, **beti euskaraz aritzen ez bazara**, zure haurrek ez dute behar bezala euskaraz ikasiko. Den-dena kontra dugu eta etxea ere erdararen kabi bihurtzen badugu, akabo!

### ARI NAHI EZ.

Eta jakina, haurrak ez du euskaraz ari nahiko, inola ere ez. Beti erdaraz erantzunen dizu, zuk noizbehinka euskaraz egiten badiozu ere.

Nola ariko da euskaraz, nekez eta zailtasunez ari den hizkuntzan, ongi eta erraztasunez ari den hizkuntza badaki? Erdaraz aise, euskaraz nekez, zein hizkuntzatan ariko da umea?

Eta jakina, gero, helduen hizkuntza, telebistako programa erakargarriena, Iruñeko lehengusuena... jende inportanteena... erdara bada, zergatik ari euskaraz? Badakizu, denok nahi izaten dugu inportanteak izan.

### AITZAKIAK

Gazte denboran beti aurkituko du aitzakiren bateuskaraz ez aritzeko. Eta okerrago dena, besteei erdaraz mintzarazteko zioa. Ez du inoiz makurtu nahiko, ez du euskarara itzuli nahiko. Neke zaio, zail zaio, indarrik ez du xahutu nahiko... errazago zaio erdaraz bizitzea, uraren korrientearen kontra ez du ari nahiko.

Hau dena ez gertatzea zure baitan dago: beti euskaraz egin iezaziozu; eta, gainera, gure izatea den euskara maitatzen erakutsi, **maitatzen ikasi egiten baita**. Eta zailtasunak zailtasun, honek luzera zoriontasuna dakar.



*Bi haur, adi-adi, zer ikasiko zain.  
Horretarako erakutsi egin behar!*

### BUKATZEKO

Mesedez, har EUSKAL BIDEA, hasieran zail eta malkartsua eginen zaizu baina laster ohituko zara eta aise eginen duzu. Eta esaera zaharrek dioten moduan, "gustuko aldapan nekerik ez" edo "gogoa den tokian aldaparik ez"

Ardo frexkoaren alde egin ezazu apustua eta utzi betiko ozpindutako ardo nazkagarri hori!



**Txurdan**

(1) *Lehengoan, telefonoz aritu nintzen Larraintzarko emakume gazte batekin, 30-38 urte artean dagoena. Zein ongi eta zein erraz ari zen euskaraz!!!! Non ikasi ote zuen eta, -Larraintzarko Eskolan- esan zidan. Lehenagotik ere ohartua nengoen adin horretako ultzamar askok ongi ikasi zutela euskaraz. Zergatik ez da gertatzen orain gauza bera? Gurasoak eta irakasleak dute hitza.*

#### Hiztegia

**Hezi:** Educar

**Kabia:** batuan habi.

**Zioa:** motivo

**Heldu:** Gazte ez dena edo.

**Laket izan:** Gustatu, gustuko

**Malkartsu:** Aldapa pikoa eta lakarra

# Zorionak Zorionak !



Zorionak Beñat!



Zorionak Aurtzy!



Zorionak Iñaki!



Zorionak Mirentxu!



Zorionak Ilargi!



Zorionak David eta Belate!



Zorionak Iosune!



Zoriondu zure laguna  
Pulunpen!  
[pulunpe@gmail.com](mailto:pulunpe@gmail.com)



# Oier Kañamares,

## sasoi onean

### Bigarren mailako Euskal Herriko txapelduna, eta hirugarrena Nafarroako lehen mailan

Kirol gehienetan bezala, herri kiroletan ere urte zaila izaten ari da. Erakustaldi gehienak bertan behera gelditu dira eta txapelketak, gainera, publikorik gabe izaten ari dira. Egoera hori izanda ere, emaitza ezin hobeak izaten ari da Oier Kañamares aroztegiarra. Garaile izan zen bigarren mailako Euskal Herriko aizkora txapelketan, Labastidan; eta, ondoren, hirugarren izan zen lehen mailako Nafarroako txapelketan.

#### Zer moduz bizi izan zenuen bigarren mailako finala?

Hasieran oso urduri nengoen, azkenean urte osoa egon gara entrenatzen eta lehendabiziko finala zen aurtengoa.

#### 23 minututan eta 38 segundotan burutu zenituen lanak, Luis Txapartegiri aurea hartuz (24'10"). Pozik emaitzarekin?

Bai, oso pozik. Ez nintzen Euskal Herriko bigarren mailako final batean inoiz izana, eta lehen finala izateko oso pozik nago emaitzarekin.

Gainera, lehen mailatik jaitsia zen Luis Txapartegi, horrek ematen zidan beldur gehien. Oso pozik nago garaipenarekin.

#### Hirugarrena gelditu zinen Nafarroako Txapelketan, kasu honetan lehen mailakoan, ezta?

Bai, hori da, duela bi urte lehen mailako finalean sartu nintzen. Pasa zen urtean, ordea, ez nuen aukera hori izan, baina aurten berriz ere sartu nintzen final horretan. Honetan ere pozik gelditu naiz emaitzarekin.

#### Kirolariendako ere urte arraroa da, baina zu sasoi onean zabiltza, ezta?

Bai, saiatzen gara astero entrenatzen eta aurten entrenamenduek fruituak eman dituzte. Dena den, giro arraroa dago, eta erakustaldi askorik ez dugu izan, pandemiaren ondorioz. Guretzako zaila da, ez dakigu aurkariak nola dauden erakustaldietan ikusten ez ditugulako. Beste urteetan aurretik badakigu gutxi gorabehera nola dauden. Baina aurten zaila zen jakitea bakoitzak zein maila emanen zuen.

#### Zure kasuan ez dago zalantzarik, familiatik datorkizu aizkora aritzearena ezta?

Bai, hori da. Lehenago aita eta osaba aritzen ziren eta orain lehengusua, Julen, eta anaia, Xuban ere aritzen dira. Aurten familiako hirurak lehen mailan aritu garen lehenbiziko aldia izan da, pena izan da anaiak kategoria galtzea. Baina bestalde, kontent gaude lehengusuak eta biok Euskal Herriko finalean egoteko aukera izan dugulako eta lan ona egin dugulako.

**Abenduaren 31n, elkarriketa egin eta beranduago, txapelduna izan zen Oier Kañamares Urrezko Aizkora, Asteasun**



Oier Kañamares ▲



## “Mugi zaitez, aztarna txikia utziz”

Batetik bestera ibiltzen gara, lanera joateko, lagunekin elkartzeko, senideak bisitatzeko, mandaturen bat egiteko, medikuarengana joateko,... zenbat kilometro egiten ote ditugu aste batean? Gure eskualdean herri txikiak ditugu eta orokorrean ohituta gaude autoa hartzen edonora joateko.

Gehienetan ere, auto bakoitzean lagun bakarra ikusten dugu. Bakoitzak gure ordutegiak ditugu, gure ibilbidea eta gainera, autoak askatasuna ematen digula sinetsarazi digute. Pentsatu al dugu ordea auto batek bere bizitza osoan zehar zenbat balio duen? Eta zenbat kutsatzen duen?

Klima-aldaketaren borrokan mugikortasun jasangarriaren aldeko ahotsak aspaldi ari dira lanean. Herri txiki hauetan ordea, oinez joatearena, bizikletaz mugitzearena, autobusez,... hirietan aurrera eramateko neurriak iruditzen zaizkigu, zerbitzuak gertuago dauden tokietarako, alegia.

Eta herrietan zer? Aitzakiak alde batera utzi eta gure aukerak martxan jartzeko garaia da.

Autoa hartu aurretik pentsatu bidaia hori egitea beharrezkoa ote den eta autoz egitea beste aukerarik ez ote duzun. Batzuetan bizikletan edo oinez egin ditzakegun ibilbide motzak ere egiten dira gure inguruan.

Autoz egitea ezinbestekoa den ibilbideetan, saiatu autoa partekatzen. Aukera paregabea da gure bidaiek aztarna gutxiago eragiteko!



### KUDEA>Go! Eskualdean autoa partekatzeko proiektua

Mugikortasun konpartiturako proiektua martxan jarri du Patxi Miranda aizaroztarrak: KUDEA>Go! izena du plataformak, eta 3.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietako jendeari beraien artean bidaia elkarbanatzeko aukera emanen die.

Autoa partekatzeko talde bat sortu zuten eskualdeko 60-70 pertsonak. 3.285 izan dira aurrera eraman diren bidaia partekatuak. Mirandak

urteotako bidaia partekatuok zenbat CO2 isurpen ekidin dituen kalkulatu du: 14.782,5 kg CO2 gutxiago isuri dira atmosferara. “Datu erreal eta harrigarri horiek oinarri, kontuan hartuta Europako Parlamentuak larrialdi klimatikoari aurre egiteko eskaria egin diela gobernuei eta gizarteari, pertsonen zerbitzura jartzeko plataforma digitala lantzen hasi nintzen”.

**Imozko udala Kudea Go plataforman sartu da. Odietan ere lanean ari dira martxan jartzeko.**



▲ Patxi Miranda aizaroztarrak Kudea Go plataforman jarri du martxan





## Urtarrilean, Larraintzarko Bentan, Oskar Alegria eta Asisko Urmeneta, besteak beste

### LIBURU BERRIAK

Pasa zen hilean aipatu genituen jaso ditugun euskarazko azken nobedadeak, batez ere zuek euskaraz irakurtzera eta IGO (Irakurri, gozatu eta oparitu) egitasmoan parte hartzera animatzeko. Orain, liburu berri gehiago ekarri ditugu gure apaletegietara, eta horiek aipatuko ditugu jarraian, baita urtarilaren programazio kulturala ere. Baina lehenago parentesi bat ireki eta IGOri buruz hitz egin dugu, aurtengo irabazlea nor izan den esateko.

### IGOren irabazlea

Eta irabazlea izan da.... Tachán! Ihabengo Arantxa Agirreurreta! Irakurri duen liburua Joseba Sarrionandiaren **Airea ez da debalde** izan da. **Airea ez da debalde** eguneroko bat da, edo gaukari bat, egileak esaten duen bezala. Eguneroko honekin eta aurreko liburu batekin (**Bizitza ez al da oso arriskutsua**) lotutako beste eguneroko bat argitaratu du, trilogia bat osatuz: **Gauzak direna balira**. Kasu honetan Arantxak e-book batean irakurri ahalko du nahi badu, hori baita saria: ebook bat. Zorionak! Parte hartu dutenei ere eskerrak eman nahi dizkiegu, eta ez galdu itxaropena! Oraindik 500 liburu falta dira zozkatzeko eta agian horietako bat lor dezakezue.

Hemen ixten dugu parentesia.

la 20 liburu berri ekarri ditugu liburutegira, beraz, ezin ditugu denak aipatu. Bi komikirekin hasiko gara: Bata, **Primavera para Madrid**, dudarik gabe aurtengo komikia. Urrezkoa da (ez da benetazko urrea, jakina, baina erabili duten tintarekin hala ematen du), eta egileak, Magiusek, Espainako ustelkeria ilustratzen du ezagutuko ditugun pertsonaia batzuen bidez: Nikolas Txikia (ez Sempe eta Goscinyrena, bestea, txarra eta kutrea), Errege familia, bankariak...

**Siempre tendremos 20 años** da beste komikia, Jaime Martinena. Langile auzoko gazte baten istorioa da, 80ko hamarkadako Bartzelonan, eta, bide batez, transizioarena. Franco hil zen eguna, heavy metala (auzoko musika edo kultura) edo auzo-elkarteen borroka dira, besteak beste, aurkituko ditugun gaiak. Testuingurua ezagutzea da helburua, komikilariaren ibilbidea profesionalbihurtu arte. Belaunaldi ezberdinak igarotzen dituen liburua, beraz, oso entretenegarri eta mamitsua.

Egia esan, gezurra esan dugulehen, lau komiki baitira ekarri ditugunak. Haurrentzat zuzendutako enarten ere bi nobedade aurkituko dituzue: **Superpatata** ospetsuaren lehenengo abentura eta **Haur besoetako (Paristik datorren artista)**, Unai Iturriagaren eta Alex Sanviren komikia. Modu dibertigarrian txikiak irakurketara

eta literaturara hurbiltzea ahalbidetzen du.

Narratibari dagokienez, bi eleberri azpimarratuko ditugu: **Panza de burro**, Andrea Abreu gaztearen lehengo liburua, ikaragarria. Kanariar uharteetan kokatua, neska baten iratzarte sexuala kontatzen du, tokiko hizkera erabiliz. Bestalde, **A la puta calle** etxegabetze baten kronika da, Cristina Fallarásena, lehen pertsonan kontatua. Pobreziari buruzko testigantza bat da.

Saiakeran, Osasuna futbol taldearen jatorriez hitz egiten diguten liburuak dauzkagu, euskalzaletasunari eta errepublikanismoari lotutako jatorria dutenak: **Rojos eta Ramon Bengaray: Osasuna y república**. Horretaz aparte, baina kirol arloarekin jarraituz, **La increíble historia de la pelota vasca** liburuan, Santiago Lesmesek euskal pilotaren historia eta bitxikeriak (apustuak, adibidez) azalduko dizkigu. Eta atal honetan ezin da falta 2020. urteko fenomenoetako bat izan dena: Irene Vallejoren **El infinito en un junco** (liburuaren historiari buruzko entsegu bat).

Horretaz aparte Elvira Lindo (**A corazón abierto**), Miren Lacalle (**Ultrachef**), Elena Medel (**Las maravillas**), Segio del Molino (**La España vacía**), Marta Sanz (**pequeñas mujeres rojas**)... Zuen zain daude liburutegian!



## OSTIRAL KULTURALAK

Urtarrilean, pandemia dela eta beti neurri guztiak betez, Larraintzarko Bentan programazio kulturala dokumentalekin, kontzertuekin eta komikiekin osatuko da, besteak beste. **Urtarrilaren 8an**, adibidez, **Oskar Alegria** etorriko da, oso saritua eta arrakastatsua izan den bere azken pelikularekin: **Zumiriki**. Veneziako jaialditik Ultzamara. "Posible ote da oroitzen berdinean bi aldiz bidaiatzea?", galdetzen dio bere buruari Alegriak. Zinegile iruindarrak egurrezko etxola bat eraikitzen du Arga ibiaertzeko bazterreko leku batean, haurtzaroan jolasten zuen uhartetik hurbil. Egun, uhartea urpean da, bere lurra ikusezin, urtegi baten pareta eraiki zutenetik. Baina uharteko zuhaitzek zutik segitzen dute, hautsitako jostailu baten mastak bailiran. Lau hilabete pasatu zituen Alegriak etxola horretan. Emaizta, pelikula berezi hori, poesiaz betea. Aukera paregabea da gure zinegile handienetako baten mundua ezagutzeko, berak azalduta.

Hurrengo ostiralean, hilaren **15ean**, kontzertua izanen da **Errotik** taldearekin. Mikel eta Ander Uharrizek osatzen dute folk-rock talde hau. Euskal musikan errotutako abesti propioak eta bertsioen bat interpretatu ohi dute. Azken kontzertuan gertatu bezala, ziur aski aretoa beteko zaigu, eta beraz, ekimen honetan eta beste guztietan ere puntualitatea beharrezkoa izanen da eserleku bat nahi baduzu.

### Urtarrilaren 22an Asisko Urmeneta

komikilari handia etorriko da bere azken lanaren (**Sugarren mende**) aurkezpen ilustratu bat (edo bi, bat bere errotulagailuarekin eta bestea bere jakinduriarekin) egitera. Hau da egileak berak kontatu diguna komikiari buruz: "Duela 410 urte burutu zen Logroñoeko autofeaa, zeinean erre egin baitzuten hainbat euskaldun, sorginak zirela akusatuta. Hura ez zen kasu bakarra izan, mende batean Inkisizioak segada ikaragarriak egin baitzuten. Nafarroan, Erronkaribarretik

Amezkoaraino, milaka herritar ehizatu zituen. Bordeleko Tribunalak, aldi berean, sutan jarri zuen Lapurdi guztia, sekta satanikoaren aitzakipean. **Zerk eraman zituen jurista eta teologo ilustratu haiek** gure arbasoei sorginak zirela aitorraraztera? "SUGARREN MENDE" liburuan mendeetako isiltasuna urratu dugu, mitologia zahar eta berria baztertu, eta ikerketa historikoa aurkeztu nahi dizuegu jazarpen hura Ultzaman jasan zenutenoi".

Horretaz guztiaz aparte, aldaketa klimatikoarekin lotutako erakusketa ere izanen dugu eta oraindik zehaztu gabeko beste ekimen bat ere bai (urtarrilaren 29an).

Eskaintza zabala da, beraz. Edo Larraintzako Bentan azken egunotan egondako artista batek, Nahia Ojetak, esan bezala: Plan bikaina ongi pasatzeko!

 **Patxi Irurzun**  
Ultzamako liburuzaina







# 2020ko azaroan

## 2020ko azaroan gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

### Jaiotzak:

#### ULTZAMA

##### Alkotz

Mihaela Mereneanu, azaroaren 16ean sortu zen. Anatolie eta Silviaren alabatxoa.



▲ Mihaela ttikia, Alkozko gazteena.

“ Zorionak gurasoei ”

### Ezkontzak

#### ANUE

##### Olague

Imanol Perotxena Ibarrola eta Irène Barneix, Olaguekoa eta Arüekoa (Zuberoa). Olaguen ezkondu ziren azaroaren 14an eta bertan biziko dira.



▲ Imanol eta Irène

“ Zorionak ezkonberriei ”

### Heriotzak:

#### BASABURUA

##### Igoa

Pedro Mari Ezkurra Alsua, **Salbadoreneko** semea, azaroaren 12an hil zen, 84 urtetan.



▲ Igoako Pedro Mari Ezkurra Alsua

“ Gure oroimenean izanen zara ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK  
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

**KARRIKOLAR**  
ELEKTRIZITATEA



**629 31 53 32 · 722 766 835**

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A  
KENTZEA**

**FATXADAK  
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA  
(IMPERMEABILIZACIONES)**

**DAVID ELIZONDO PINTURAK**  
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA  
ETA  
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA  
KONPROMEZURIK GABE**

**678623866**

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





**Urte berri, logo berri!**

**2021 urte zoriontsua  
opa dizuegu denoi!**



# Esan Erran IRRATIA

---

## 107.9 FM

*Esan erranen, irudi berriarekin hasiko dugu urtea...*

Egilea: Miren Arregi